

HOTICE

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuan, beste enpresetan bezala proiektuaren funtsezko jarduerak ezarri egin ditugu, hau da, lehenetsun batzuk, proiektua aurrera eramateko orduan.

Gure proiektuan EKOIZPENA eta WEB-ORRIALDEAREN KUDEAKETA ETA EGUNERAKETA ezinbestekoak dira

EKOIZPENA:

Ekoizpena izango da gure jarduerarik inportanteena, honen emaitza gure produktua izango delako.

Gure produktua partez-parte produzituko dugu eta azkenean, zati guztiak lotuko dugu, puzzle bat izango bazen bezala.

Lehendabizi, "teknologia" egongo den motxila antzekoa ekoitziko dugu (eramangarria izateko). Ondoren, bi metalezko zilindroak (zilindro batean janaria berotzeko da eta bestean hotza mantentzeko) ekoitzi eta gero, motxilan jarriko ditugu. Azkenik, mini-mikrouhin antzeko bat instalatuko dugu zilindro batean eta bestean hotza kontzentratzeko beste zerbait.

WEB-ORRIALDEAREN KUDEAKETA ETA EGUNERAKETA

Izenburua adierazten duen bezala, enpresaren beste funtzio oso inportante bat gure web-orrialdea zaintzea izango da. Azken finean gure produktuak saltzeko tresna printzipala izango da eta bertan gure zerbitzuaren informazio guztia aurkituko dute, beraz egunero eguneratuko beharra izango dugu.



